



AGINDUA, HEZKUNTZAKO SAILBURUARENA, INKLUSIOA, BIZIKIDETZA ETA ANIZTASUNAREN KUDEAKETA GARATZEKO ZENTROA, BIZILAB, SORTZEKO ETA HAREN LANPOSTU-ZERREDA ONARTZEKO OTSAILAREN 24KO 20/2026 DEKRETUAREN AKATSAK ZUZENTZEKO DEKRETU-PROIEKTUA ALDEZ AURRETIK ONARTZEKO.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren ekainaren 30eko 6/2022 Legeak II. kapituluan xedatzen duenez, xedapen orokorrak egiteko prozedura xedapen horien gaiaren gainean eskumena duen saileko sailburuaren aginduz hasiko da.

Lege horren 15. artikuluan ezarritakoaren arabera, "xedapen orokorren egitasmoak idatzitakoan, prozedura hasteko agindua eman duen organoak alde aurreko onarpena eman beharko dio dena delako testu artikulatuari, dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsultazapideak egin aurretik".

2026ko ekainaren 16an, Hezkuntzako sailburuak agindu zuen Inklusioa, Bizikidetza eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroa (BiziLab) sortzeko eta haren lanpostu-zerrenda onartzeko otsailaren 24ko 20/2026 Dekretuaren akatsak zuzentzeko dekretu-proiektua egiteko prozedura hasteko.

Proiektuaren testua idatzi ondoren, eta hasteko agindu horretan ezarritako helburuarekin bat etorritz, proiektua onartu behar da, jendaurreko informazioaren eta kontsultaren izapideak egin aurretik.

Hori guztia dela eta, honako hau

XEDATU DUT:

Lehenengoa.- Aldez aurretik onartzea Inklusioa, Bizikidetza eta Aniztasunaren Kudeaketa Garatzeko Zentroa, BiziLab, sortzeko eta haren lanpostu-zerrenda onartzeko otsailaren 24ko 20/2026 Dekretuaren hutsak zuzentzeko dekretu-proiektuaren testua.

Bigarrena.- Xedapen hori egiteko prozedura amaitzeko behar diren instrukzio-egintzekin jarraitzeko agintzea.

Vitoria-Gasteiz, sinaduran ageri den eguna.

BEGOÑA PEDROSA LOBATO

Hezkuntzako sailburua

